

**BILBOKO PLAZA BARRIKO EUSKALTZAINDIAREN
EGOITZAZ,
Bilboko Udaletxean izandako bisita**

1987-III-30

*Ricardo Badiola Uriarte,
Argitarapenen Eragilea*

– Gaur goizeko lletan bildu dira, Bilboko Alkatearen bulegoan: Jose Luis Robles Bilboko Alkatea, Xabier Ruiz Hirigintzarako zinegotzia, Alfonso Irigoyen, Juan Jose Zearreta eta Ricardo Badiola Euskaltzaindiko ordezkari bezala, Plaza Barriko aparkalekuaren sarrera berria dela eta mintzatzeko.

– A. Irigoyenek azaldu du zertan den arazoa, Euskaltzaindiaren Egoitza izango den etxea konpontzeko egutegiarentzat zer-nolako atzerapenak ekar ditzakeen azpimarratuz eta gai honetaz, Bilboko Udalak erabakirik hartu edo hartuko duen galdetuz, R. Badiola eta J. J. Zearreta jaunek zenbait zehaztasun eskaini dituzte.

– Xabier Ruiz Hirigintzarako zinegotziak zera erantzun du: Zazpi Kaleak eraberritzeko SURBISA izeneko udal enpresa bat sortu zela eta enpresa horren eskuetan dagoela arazoa konpontzea. Apirilaren 30a baino lehenago egin eta aurkeztu behar zaio Bizkaiko Foru Diputazioari proiektu bat, eta haren dirulaguntzaz aparkalekuaren sarrera berria egiteko asmoa omen dago.

– Bestalde, Jose Luis Robles Alkate jaunak esan duenez, Udalak ezin izango du erabakirik hartu, ez baitu batzarrerik egingo.

– Bilera amaitu baino lehen, Xabier Ruiz Hirigintzarako zinegotziak azaldu die Euskaltzaindiaren ordezkari, Plaza Barriko proiektua egiten ari diren arkitektoek badutela asmo eta aldaketa honen berri eta haiekin egotea komeni dela.

* * *

– Harrezkero, Apirilaren 15ean, Txema Basañez eta Eduardo de Felipe arkitektoekin izan ziren, Egoitzaren proiektu teknikoa nola dagoen ikusteko. Baita ere, Imanol Abando Diputazioko “Patrimonio” Saileko arkitektoak, zenbait laguntzailereekin, Arbietoko bulegoak ikustatzen egindako bisitaz mintzatzeko.

– SURBISAren proiektuaz, Plaza Barriko oraingo egituraren baliorik ezaz, erresistentzien ikerketaz eta abar, hitz egin zuten.

Denen artean mintzatuz gero, aurrera begira hurrengo proiektuetan bat etorri dira:

a) *Argitarapenetan* hurrengook aurrera eraman ahal ditu Euskaltzaindiak Iberdueroren laguntzarekin: 1. *Iparragirre*, 2. Bertsolaritza, 3. Seaska kanta, 4. *Orotariko Euskararen hiztegia* (O.E.H.), 5. Lexikoia, 6. Euskal gramatika, 7. Atlas linguistikoa, 8. R. M.^a Azkueren *Euskalerraren Yakintza* liburuaren berrargitarapena.

b) Ordenagailuetan argibideak eta laguntzak eskaintzeko prest azaldu da Iberduero, bai teknika mailan eta bai dirutan ere.

Zuzendari Orokorrek begi onez ikusi ditu Euskaltzaindiaren proiektuak eta babes osoa emango duela bai diruz eta bai pertsonal mailan adierazi du.

Besterik gabe bilera amaitu dute, zenbait argazki atereaz, bileraren frogagiri erara.